

Sony Ericsson

U100



Sony Ericsson

Euskaltelek itzultitako eta
ekoiztutako eskuliburua



Edukia

Sarrera.....	4
Telefonoaren deskribapen orokorra.....	5
Telefonoa piztea.....	6
Laguntza.....	7
Bateria kargatzea.....	7
Maximizatu bateriaren errendimendua.....	8
Pantailako ikonoak.....	9
Menuaren aurkezpena.....	10
Nabigazioa.....	11
Memoria.....	12
Telefonoaren hizkuntza.....	13
Testua idaztea.....	13
Deiak	15
Deiak egitea eta jasotzea.....	15
Agenda	17
Markatze azkarra.....	19
Dei-funtzio gehiago.....	20
Irudiak	24
Kameraren bisorea eta teklak.....	24
Kamera erabiltzea.....	24
Bideokamera erabiltzea.....	26
Argazkien erabilera.....	26
Argazkiak bistaratzea eta etiketatzea.....	26
Argazkiak erabiltzea.....	27
Argazkiak inprimatzea.....	28
Web albumak erabiltzea.....	28
Telefonoko bideoetara sarbidea.....	29
Musika	30
Esku libreko kit eramangarri estereoa.....	30
Musika-erreproduzizailea.....	30
Erreprodukzio zerrendak.....	30
SensMe™.....	31
Audio liburuak.....	32
Erostea.....	32
PlayNow™.....	32
TrackID™.....	33
Musika eta bideoklipak linean.....	33
Irratia	33
Grabagailua	34

Edukiak transferitzea eta kudeatzea.....	35
Telefonoko edukiak kudeatzea.....	35
Edukiak beste telefono batera bidaltzea.....	35
USB kable bat erabiltzea.....	35
Edukia ordenagailura eta ordenagailutik transferitzea.....	36
Telefonoaren izena.....	37
Haririk gabeko Bluetooth™ teknologia erabiltzea.....	37
Segurtasun-kopiak eta leheneratzea.....	38
Telefonoa eguneratzea.....	39
Sony Ericsson PC Suite erabilia telefonoa eguneratzea.....	39
Haririk gabe telefonoa eguneratzea.....	39
Mezuak.....	40
Testu- eta irudi-mezuak.....	40
Elkarrizketak.....	41
Ahots-mezuak.....	41
Posta elektronikoa.....	41
Internet	44
Nabigatzailearen tresna-barra.....	44
Nabigatzailearen lasterbideak.....	44
Gogokenak.....	44
Historia-orriak.....	45
Nabigatzailearen funtzio gehiago.....	45
Interneteko segurtasuna eta ziurtagiriak.....	45
Fitxategiak transferitzea.....	46
Web-informazio kanalak.....	46
YouTube™	47
GPS.....	48
GPSa erabiltzea.....	48
Google Maps™ zure telefonoan.....	49
Gidatzeko helbideak.....	49
Tracker.....	49
Sinkronizazioa.....	51
Ordenagailuarekin sinkronizatzea.....	51
Interneteko zerbitzu baten bidez sinkronizatzea.....	51
Funtzio gehiago.....	52
Hegaldi modua.....	52
Alarmak.....	52
Egutegia.....	53
Oharrak.....	53
Zereginak.....	54
Profilak.....	54
Data eta ordua.....	54

Gaia.....	55
Menu nagusiaren antolamendua.....	55
Pantailaren orientazioa.....	55
Dei-tonuak.....	55
Jokoak.....	56
Aplikazioak.....	56
Antibirusa.....	57
PIN kodea.....	57
Blokeoak	58
IMEI zenbakia.....	59
Arazoen konponbidea.....	60
Ohiko galderak.....	60
Errore-mezuak.....	62
Legezko informazioa.....	63
Aurkibidea.....	64


Sarrera

Informazio garrantzitsua


Telefonoa erabili aurretik, irakurri *Informazio garrantzitsua*.

Telefonoaren deskribapen orokorra

- 1 Belarriako bozgorailua
- 2 Bideo-deietarako kamera
- 3 Jokoetarako teklak
- 4 Pantaila
- 5 Kargagailurako, USB kablerako eta esku libreko kiterako konektorea
- 6 Hautaketa-teklak
- 7 Deitzeko tekla
- 8 Jarduera-menuaren tekla
- 9 Norabide-tekla
- 10 Amaitzeko edo aktibatzenko/desaktibatzenko tekla
- 11 C tekla (ezabatzenko)



- 12 Kamera nagusia
- 13 F lasha
- 14 Memoria-txartelaren zirrikitua
- 15 Bolumena eta zoom digitala kontrolatzeko botoiak
- 16 Bozgorailu estereoak
- 17 Kameraren tekla
- 18 Telefonoaren antena
- 19 Uhalerako zuloa




SIM txartela sartzeko



- 1 Kendu bateriaren tapa.
- 2 Sartu SIM txartela dagokion tokian, urre koloreko kontaktuak beherantz dituela.


Bateria sartzeko



- 1 Sartu bateria alde etiketaduna gorantz duela eta konektoreak bata bestearen parean daudela.
- 2 Jarri bateriaren tapa.

Telefonoa piztea

Telefonoa pizteko



- 1 Luze sakatu .
- 2 Sartu SIM txartelaren PINa, eskatzen badizu eta sakatu **Ados**.
- 3 Hautatu hizkuntza.
- 4 Jarraitu erabilera-jarraibideei.

💡 PINa sartzean errore bat zuzendu nahi baduzu, sakatu



SIM txartela

Sare-operadoreak emandako SIM txartelak (abonatuaren identifikazio-modulua) zure harpidetzari buruzko informazioa du. SIM txartela sartu edo atera aurretik, telefonoa itzali eta kargagailua deskonektatu.

💡 Telefono-aurkibideko informazioa SIM txartelean gorde dezakezu, telefonotik atera aurretik.

PINa

Telefonoaren zerbitzuak eta funtzioak aktibatzeko, baliteke PINa (Identifikazio Pertsonaleko Zenbakia) behar izatea. PINa kodea sareko operadoreak emango dizu. Digtuak * ikurrarekin ezkututzen dira, lehenbiziko zenbakiak larrialdietako telefonoren bateko zenbaki bereberekin hasten direnean izan ezik (adibidez, 112 edo 911). Hartara, larrialdietako telefono bat ikus dezakezu eta hara deitu PINik sartu gabe.

! PINa hiru aldiz jarraian gaizki sartuz gero, SIM txartela blokeatu egiten da. Ikus SIM txartela blokeatzea, 57. orrialdean.

Itxaroteko modua

Sare-operadorearen izena bistaratuko da telefonoa piztu eta PIN kodea sartutakoan. Horri itxaroteko modu esaten zaio. Une horretan, telefonoa erabiltzeko prest dago.

Beste sare batzuk erabiltzea

Saretik kanpo (desplazamendu-egoeran) deiak egiteak eta jasotzeak, mezuak bidaltzeak eta datuak transferitzeak kostu gehigarria izan dezake. Eskatu informazio gehiago zure operadoreari.

Laguntza

Erabiltzailearen eskuliburu honez gain, badira funtzioen gidak eta informazio gehiago dago www.sonyericsson.com/support gunean.

Telefonoaren informazioa eta laguntza edozein unetan dituzu eskura. Jarraitu argibideok.

Erabiltzailearen gidaliburura sartzeko

- Hautatu **Menu > Ezarpenak > Laguntza > Erabiltzailearen gida.**

Aholkuak eta trikimailuak ikusteko

- Hautatu **Menu > Ezarpenak > Laguntza > Aholk. eta amarruak.**

Funtzioei buruzko informazioa ikusteko

- Joan funtzio batera, eta hautatu **Info.**, erabilgarri badago. Batzuetan, **Info. Auker.** aukeraren azpian agertzen da

Telefonoak nola funtzionatzen duen ikusteko

- Hautatu **Menu > Denborapasak > Demo ibilbidea.**

Telefonoaren egoera ikusteko

- Sakatu bolumen-tekla. Telefonoari, memoriari eta bateriari buruzko informazioa bistaratzen da.

Funtzio eta zerbitzu bateragarriak

- ! Erabiltzailearen gida honetan azaltzen diren zenbait zerbitzu eta funtzio ez dira sare edota hornitzaile guztiekin bateragarriak. Honek bere eragina du nazioarteko 112 GSM larrialdietarako zenbakian. Jarri harremanetan zure sare hornitzaile edo zerbitzu hornitzailearekin funtzio eta zerbitzuen erabilgarritasunaren berri izateko eta sarbiderako edo erabiltzeagatik tasa gehigarriak noiz ordaindu behar diren.

Bateria kargatzea


Telefonoaren bateria zertxobait kargatuta egoten da erostean.

Bateria kargatzeko






























- 1 Konektatu kargagailua telefonoari.
- 2 Kendu kargagailua larakoa gorantz okertuta.

Maximizatu bateriaren errendimendua

- Telefonoa maiz kargatu. Bateria gehiago irauten du maiz kargatuz gero.
 - Estaldurarik gabeko ingurune baten bazaude, telefonoa etengabe bilatuko ditu erabiltzeko moduan dauden sareak. Honek bateria kontsumitzen du. Ezin baduzu estaldura hobearen ingurune batera mugitu, itzali telefonoa aldi baterako.
 - Ez estaldu telefonoaren antena deia baten bitartean.
-  Bisitatu www.sonyericsson.com/support bateriaren errendimendua nola maximizaturik buruz informazio gehiago lortzeko.

Pantailako ikonoak

Pantailan honako ikono hauek agertu daitezke:

Ikonoa	Deskribapena
	Bateria ia guztiz kargatuta dago
	Bateria kargatu behar da
	Sare estaldura ona da
	Ez dago sare estaldurarik (hegaldi moduan ere agertzen da)
	3G sarea eskuragarri
	UMTS HSPA sare eskuragarri
	Dei galduak
	Desbideratutako deiak
	Uneko deia
	Mikrofonoa deskonektatuta dago
	Bozgorailua aktibatuta dago
	Telefonoa modu isilean dago
	Testu-mezu berria
	Multimedia-mezu berria
	Posta elektronikoa berria
	Musika erreproduzitailea martxan dago
	Irratia martxan dago
	Esku libreko kita konektatuta
	Bluetootha aktibatuta
	Bluetooth entzungailua konektatuta
	Telefonoa internetera konektatuta dago
	Web gune segurua
	Alarma aktibatuta dago
	Hitzordua gogorarazteko
	Zeregin bat gogorarazteko
	GPSa aktibatuta
	Java aplikazio bat aktibatuta

Menuaren aurkezpena *

 PlayNow™

 Kamera

 Kokapen zerbitzuak

Google Maps
Nabigatzailea
Tracker
Gogokoak
Ezarpenak

 Deiak**

 Guztiak

 Erantzundakoak

 Markatuak

 Galduak

 Internet

 Mezularitza

Idatzi berria
Sarrerako ontzia
Mezuak
Mezu el.
Deitu erantzung.

 Kontaktuak

Ni
Kontaktu berria

 30

Antolatzailea


Alarmak
Aplikazioak
Fitxategi
kudeatzailea**
Fitxategi transfer.
Egutegia
Egitekoak
Oharrak
Bideo deia
Sinkronizazioa

Tenporizadorea

Kronometroa

Linterna

Kalkulagailua

 Denborapasak

Operadorearen zerb.
Irratia
TrackID™
PlayNow™
Grabatu soinua
Demo Ibilbidea.

 Media

Argazkia
Musika
Bideoa
Jokoak
Web iturriak
Ezarpenak

 Jokoak

 Ezarpenak

Orokorra

Profilak
Ordua eta data
Hizkuntza
Eguneratu softwarea.
Ahots kontrola
Laster tekla
Hegaldi modua
Blokeo automatikoa
PIN kodeak
Segurtasuna
Telefono egoera
Berrezartze orokorra

Soinu eta alertak

Tonuaren bolumena
Tonua
Modu isila
Tonu gorakorra
Dardara alerta
Mezu alerta
Tekla soinua

Pantaila

Horma-papera
Menu diseinua.
Gaia
Hasierako pantaila
Pantaila babesa
Erlojuaren tamaina
Argitasuna

Deiak

Markatze azkarra
Bilaketa dinamikoa
Deiak desbideratu
2. Lineara aldatu
Deiak kudeatu
Ordua
Erakutsi/ezkutatu zk.
Eskulibrea
Ireki, erantzuteko
Itxi deia amaitzeko.

Konektagarritasun.

Bluetooth
USB
Telefonoaren izena
Sinkronizazioa
Gailuen kudeaketa.
Sare mugikorak
Datuen komunikazioa
Interneteko ezarpenak
Ezarpenak
Mezu ezarpenak
SIP ezarpenak
Osagarriak

Laguntza


Erabiltzailearen gida
Deskargatu ezarp.
Oinarrizko konfig.
Aholk. eta amarruak

* Menu batzuk sarearen, harpidetzaren eta operadorearen menpe daude.

** Norabide-tekla erabil dezakezu azpimenuetako fitxetan mugitzeko.

Nabigazioa

Menu nagusira joateko

- Pantailan **Menu** agertzean, sakatu erdiko hautapen-tekla, Menu hautatzeko.
- Pantailan **Menu** agertzen ez bada, sakatu ,  eta, ondoren, sakatu erdiko hautapen-tekla, **Menu** hautatzeko.

Telefonoaren menuetan barrena mugitzeko



- Erabili norabide-tekla gorantza, beherantz, eskuinerantz edo ezkererantz menuetan barrena mugitzeko.

Pantailan bistaratzen diren ekintzak hautatzeko

- Sakatu ezkerreko, erdiko edo eskuineko aukeraketa-tekla.

Elementu baten aukerak ikusteko

- Hautatu **Auker.**, adibidez, editatzeko.

Funtzio bat amaitzeko

- Sakatu .


Itxaroteko modura itzultzeko

- Sakatu .

Mediatik mugitzeko

- 1 Hautatu **Menu > Media**.
- 2 Joan menuko elementu batera, eta sakatu eskuineko norabide-tekla.
- 3 Atzera egiteko, sakatu ezkerreko norabide-tekla.

Elementuak ezabatzeko

- Sakatu  zenbakiak, gutunak, irudiak, soinuak eta antzeko elementuak ezabatzeko.

Fitxak

Baliteke fitxak egotea. **Deiak** menuan, adibidez, fitxak daude.



Fitxa batetik bestera aldatzeko

- Sakatu norabide-tekla, ezkererantz edo eskuinerantz.

Laster teklak

Teklatuko lasterbideak erabil ditzakezu itxaroteko modutik zuzenean funtzioetara sartzeko.

Norabide-teklaren zuzeneko sarbideak erabiltzeko

- Sakatu norabide-tekla gorantza, beherantz, eskuinerantz edo ezkererantz funtzio batera zuzenean sartzeko.

Norabide-teklaren zuzeneko sarbide bat aldatzeko

- 1 Hautatu **Menu > Ezarpenak > Orokorra > laster teklak.**
- 2 Joan aukera batera, eta hautatu **Editatu.**
- 3 Joan nahi duzun menura eta hautatu **Lasterb.**

Menu nagusiko lasterbideak

Menuen zenbakiak ezkerretik eskuinera eta goitik behera doaz, ezkerreko goiko izkinako ikonotik hasita.

Zuzenean menu nagusiko elementu batera joateko

- Hautatu **Menu** eta sakatu **U1** – **9**, ***+**, **□** **o** **#**3**.
- ! **Menu diseinua** aukeran, **Gaitik** jarri behar da. Ikus Menu nagusiaren antolamendua aldatzeko, 55. orrialdean.

Aktibitate menua

Aktibitate menuan, funtzio hauetarako zuzeneko sarbidea duzu:

- **Gert. berriak:** galdutako deiak eta mezu berriak..
- **Abian diren apl.:** bigarren mailan egiten diren aplikazioak.
- **Nire laster teklak:** gehitu zure funtzio gogokoak, horietara bizkor sartzeko.
- **Internet:** interneterako lasterbidea.

Aktibitate menua irekitzeko

- Sakatu **□**.

Memoria

Edukiak memoria-txartel batean, telefonoaren memorian eta SIM txartelean gorde ditzakezu. Memoria-txartel bat sartua baduzu, argazkiak eta musika automatikoki gordetzen dira memoria horretan. Txartelik sartu ez baduzu edo beteta badago, argazkiak eta musika telefonoaren memorian gordeko dira. Mezuak eta telefono-aurkibidea telefonoaren memorian gordeko dira, baina SIM txartelean gordetzea hauta dezakezu.

Memoria-txartela

- ! Litekeena da memoria-txartel bat erosi behar izatea.

Telefonoak microSD™ memoria-txartela onartzen du; telefonoari, gordetzeko toki gehiago eranstean dio. Memoria-txartel eramangarri gisa ere erabil daiteke beste gailu bateragarri batzuekin.


Telefonoaren memoriaren edukia memoria-txartel batera eta alderantziz mugitzeko aukera ematen du.

Memoria-txartela sartzeko



- Tapa ireki eta sartu memoria-txartela urre koloreko kontaktuak behera begira dituela.

Memoria-txartela ateratzeko



- Tapa ireki eta txartelaren ertza sakatu askatu eta ateratzeko.

Telefonoaren hizkuntza

Hizkuntza bat hauta dezakezu telefonoan erabiltzeko.

Telefonoaren hizkuntza aldatzeko

- 1 Hautatu **Menu > Ezarpenak > Orokorra > Hizkuntza > Tel. hizkuntza**.
- 2 Hautatu aukera bat.

Testua idaztea

Idazteko, Quick Text Input metodoa erabil dezakezu . Quick Text Input metodoak integratuta duen hiztegi bat erabiltzen du.

Idazteko hizkuntza aldatzeko

- Testua idaztean, luze sakatu .

Testua idazteko modua aldatzeko

- Testua idaztean, luze sakatu .

Maiuskulak, minuskulak eta zenbakien artean aldatzeko

- Testua idaztean, sakatu .

Zenbakiak idazteko

- 1 Testua idaztean, sakatu pantailaren goiko aldean agertu arte.
- 2 Zenbaki bat idazteko, sakatu - .

- 💡 Testu idazteko modutik zenbaki bat idazteko, luze sakatu - .

Puntuak, komak eta ikurrak sartzeko






- 1 Testua idazteko, sakatu .
- 2 Joan ikur batera, eta hautatu **Txertatu**.

- Gehien erabilitako puntuazio ikurrak aukeratzeko, hau ere sakatu dezakezu pulsar ¹ .

Quick Text Input bidez testua sartzeko

- 1 Hautatu, adibidez, **Menu > Mezularitza > Idatzi berria > Mezua**.
- 2 , agertzen ez bada, luze sakatu Quick Text Inputera aldatzeko.
- 3 Tekla bakoitza behin bakarrik sakatu, baita nahi duzun letra tekla aurrenekoa ez bada ere. Adibidez, "Jane" idazteko, sakatu (5), (2), (6), (3).
- 4 Hitz osoa idatzi, iradokizunetan bilatu aurretik.
- 4 Hitz iradokizunak ikusteko, sakatu edo norabide-tekla beherantz .
- 5 Iradokizun bat onartzeko eta hutsunea gehitzeko, sakatu .

Pultsazio bidezko metodoa erabiliz testua sartzeko

- 1 Hautatu, adibidez, **Menu > Mezularitza > Idatzi berria > Mezua.**
- 2 , agertzen ez bada, luze sakatu  pultsazio bidezko metodora aldatzeko.
- 3 Sakatu  –  behin eta berriz nahi duzun letra bistaratu arte.
- 4 Sakatu  hutsunea sartzeko.

Telefonoak integratuta duen hiztegian hitzak sartzeko



- 1 Quick Text Input erabilia testua idaztean, hautatu **Auker. >Letreiatu hitza.**
- 2 Editatu hitza pultsazio bidezko metodo bidez, eta hautatu **Gorde.**

Deiak

Telefonoa piztea eta sare-estaldura egotea ezinbestekoa da.

Deiak egitea eta jasotzea



Deia egiteko

- 1 Sartu telefono-zenbakia (nazioarteko kodearekin eta eremuko kodearekin, baldin badagokio).
 - 2 Sakatu .
-  Telefono-aurkibideko eta dei-zerrendako zenbakietara dei dezakezu.


Deia amaitzeko

- Sakatu .

Nazioarteko deiak egiteko

- 1 Luze sakatu  "+" ikurra agertu arte.
- 2 Sartu nazioarteko aurrezenbakia, area-kodea (lehen zerorik gabe) eta telefono-zenbakia.
- 3 Sakatu .

Zenbaki bat berriz markatzeko

- **Berriro saiatu?** agertzen denean, aukeratu **Bai**.
-  Ez eraman telefonoa belarriaren ondora zain zauden bitartean. Konexioa ezartzean, telefonoak soinu ozen bat emititzen du.

Dei bati erantzuteko

- Sakatu .




Deia ez onartzeko:

- Sakatu .



Hitz egiten ari zarenean entzungailuak duen bozgorailuaren bolumena aldatzeko

- Sakatu bolumen-tekla gorantz edo beherantz.



Mikrofonoa itzaltzeko dei bat martxan dagoela

- 1 Luze sakatu  eta hau agertuko da .
- 2 Luze sakatu  tekla berriro martxan jartzeko.

Hitz egiten ari zarenean bozgorailua aktibatzeko

- Hautatu **Boz. Akt.** eta hau agertuko da .
-  Ez eraman telefonoa belarriaren ondora bozgorailua erabiltzen duzun bitartean. Belarrian min har dezakezu.


Galdutako deiak ikusteko

- Hau agertuko da . Sakatu  deien zerrenda irekitzeko.

Hondo-musika

Uneko deiari hondo-musika gehitu diezaiokezu. Aktibatzen baduzu, partaide guztiek entzun ahal izango dute. Hondo-musika jotzen jarraitzen du telefonoa modu isilean egon arren.

Dei batean hondo-musika martxan jartzeko

- Deia bitartean, hautatu **Musika**
-  Ikusi *Musika erreproduzitzailea* 30. orrialdean.

Hondo-musikaren erreprodukzioa gelditzeko

- Sakatu hautatze-tekla erdirantz.

Hondo-musikaren bolumena aldatzeko

- Sakatu bolumen-tekla gorantz edo beherantz.
- ! Musika jotzen ari denean, bolumena baino ezin da aldatu.

Bideo-deia

Bideo-dei baten, hitz egiten ari zaren pertsonak pantaila ikusiko zaitu.

Bideo-dei bat egin aurretik

3G (UMTS) zerbitzua erabilgarri dago 3G ikonoa bistaratzen denean. Bideo-dei bat egin ahal izateko, 3G (UMTS) zerbitzua onartzen duen eta 3G (UMTS) estaldura duen 3G (UMTS) telefono-harpidetza eduki behar dute bi solaskideek).

Bideo-dei bat egiteko

- 1 Sartu telefono-zenbakia (nazioarteko kodearekin eta eremuko kodearekin, baldin badagokio).
- 2 Hautatu **Aukerak** > **Egin bideo deia**..

Egindako bideo-dei batean zooma erabiltzeko

- Sakatu norabide-tekla gorantz edo beherantz.

Bideo-dei batean argazkiak eta bideoak partekatuzeko

- 1 Bideo-dei batean bideo partekatuko moduaren fitxara igarotzeko, sakatu ezkerreko norabide-tekla.
- 2 Joan bideoklip edo argazki batera, eta hautatu **Konpartitu**.

Bideo-deien aukerak ikusteko

- Hitz egiten ari zarela, hautatu **Aukerak**.

Larrialdi-deiak

Telefonoak nazioarteko larrialdi-zenbakiak onartzen ditu, adibidez: 112 eta 911. Zenbaki horiek larrialdi-deiak egiteko erabil ditzakezu edozein herrialdetan, telefonoan SIM txartela eduki edo ez, sarearen estalduraren barruan bazaude.

- ! Herrialde batzuetan, beste larrialdi-zenbaki batzuk ere egon daitezke. Beraz, baliteke zure sare-operadoreak tokiko beste larrialdi-zenbaki batzuk gorde izana SIM txartelean.

Larrialdi-deia egiteko

- Sartu 112 (nazioarteko larrialdi-zenbakia) eta sakatu 

Tokian tokiko larrialdi-zenbakiak ikusteko

- 1 Hautatu Menua > Kontaktuak.
- 2 Joan **Kontaktu berria** aukerara, eta hautatu **Auker.** > **Zenbaki bereziak** > **Larrialdi zenbakiak**.




Sareak

Telefonoak automatikoki aldatzen du GSM eta 3G (UMTS) sareen artean batetik bestera. Sare-operadore batzuek sareak eskuz aldatzeko aukera ematen dute.



Sareak eskuz aldatzeko

- 1 Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** > **Konektagarritasun.** > **Sare mugikorak** > **GSM/3G sareak**.
- 2 Hautatu aukera bat.

Dei-zerrenda

Jasotako , egindako , galdutako eta baztertutako  deiei buruzko informazioa ikus dezakezu.

Dei-zerrendako zenbaki batera deitzeko

- 1 Sakatu  eta joan fitxa batera.
- 2 Joan izen edo zenbaki batera, eta sakatu .

Kontaktuak

Izenak, telefono-zenbakiak eta informazio pertsonala gorde ditzakezu **Kontaktuak** funtzioan. Informazioa telefonoaren memorian edo SIM txartelean gorde dezakezu.

 *Sony Ericsson PC Suite* bidez kontaktuak sinkronizatzeko.

Lehenetsitako telefono-aurkibidea

Kontaktuetan informazioa hauta dezakezu lehenetsita bistaratzeko. Lehenetsitako aukera gisa **Tel. kontaktuak** hautatzen baduzu, **Kontaktuak** funtzioan gordetako informazio guztia bistaratuko du. Aurrez zehaztutako aukera gisa **SIM Kontaktuak** hautatzen baduzu, SIM txartelean gordetako izenak eta telefono-zenbakiak bistaratuko ditu.

Kontaktuen zerrenda lehenetsia hautatzeko

- 1 Hautatu **Menua > Kontaktuak**.
- 2 Joan **Kontaktu berria** aukerara, eta hautatu **Auker.. > Aurreratua > Kontaktu lehenetsiak..**
- 3 Hautatu aukera bat.

Telefonoko aurkibidea

Telefono-aurkibidean izenak, telefono-zenbakiak eta informazio pertsonala egon daitezke. Telefonoaren memorian gordetzen da.

Telefono-kontaktu bat gehitzeko

- 1 Hautatu **Menua > Kontaktuak**.
- 2 Joan **Kontaktu berria** aukerara eta hautatu **Gehitu**.
- 3 Sartu izena, eta hautatu **Ados**.
- 4 Joan **Zenbaki berria** aukerara, eta hautatu **Gehitu**.
- 5 Sartu zenbakia, eta hautatu **Ados**.
- 6 Hautatu zenbakizko aukera bat.
- 7 Joan fitxa batetik bestera, eta bete eremuak.
- 8 Hautatu **Gorde**.

Kontaktuei deitzea




Kontaktu bati deitzeko

- 1 Hautatu **Menua > Kontaktuak**.
- 2 Joan kontaktu batera, eta sakatu .

Zuzenean kontaktuen zerrendara joateko

- Luze sakatu  - .

Bilaketa dinamikoa erabilia deitzeko

- 1 Sakatu  -  digitu-segida bat (gutxienez bikoia) sartzeko. Digtu- edo letra-segidarekin bat datozen sarrera guztien zerrenda bistaratzen da.
- 2 Joan kontaktu edo telefono-zenbaki batera, eta hautatu .


Bilaketa dinamikoa aktibatzeke edo desaktibatzeke

- 1 Hautatu **Menua > Ezarpenak > Deiak > Bilaketa dinamikoa**.
- 2 Hautatu aukera bat.

Kontaktuak aldatzea

Telefono-kontaktu bati informazioa gehitzeko

- 1 Hautatu **Menua > Kontaktuak**.
- 2 Joan kontaktu batera eta hautatu **Aukerak. > Editatu kontaktoa**.
- 3 Joan fitxa batetik bestera, eta hautatu **Gehitu** edo **Editatu**.
- 4 Hautatu aukera bat eta elementu bat gehitzeko edo aldatzeko.
- 5 Hautatu **Gorde**.


-  Zure harpidetzak deitzen duenaren linea identifikatzeko zerbitzua (CLI) ematen badu, dei-tonu, irudi eta argi-efektu pertsonalak esleitzen diezazkiekezu kontaktu bakoitzari.

Telefono-aurkibidean izenak eta zenbakiak kopiatzeko

- 1 Hautatu **Menua > Kontaktuak**.
- 2 Joan **Kontaktu berria** aukerara, eta hautatu **Auker.. > Aurreratua > Kopiatu SIM-etik**.
- 3 Hautatu aukera bat.

Izenak eta zenbakiak SIM txartelean kopiatzeko

- 1 Hautatu **Menua > Kontaktuak**.
- 2 Joan **Kontaktu berria** aukerara, eta hautatu **Auker.. > Aurreratua > Kopiatu SIM-era**.
- 3 Hautatu aukera bat.

-  Telefonoko aurkibide guztia SIM txartelera kopiatzerakoan, SIM txarteleko informazio guztia ordezkutzen da.

Izenak eta telefono-zenbakiak SIM txartelean automatikoki kopiatzeko

- 1 Hautatu **Menua > Kontaktuak**.
- 2 Joan **Kontaktu berria** aukerara, eta hautatu **Auker.. > Aurreratua > Gorde SIMean auto**.
- 3 Hautatu aukera bat.

Memoria-txartel bateko kontaktuak gordetzeko

- 1 Hautatu **Menua > Kontaktuak**.
- 2 **Kontaktu berria** aukerara, eta hautatu **Auker.. > Aurreratua > Babeskopia:txartela**

SIM txarteleko aurkibidea

SIM txarteleko telefono-aurkibideak izenak eta zenbakiak baino ezin ditu izan. SIM txartelean gordetzen da.

SIM kontaktu berria gehitzeko

- 1 Hautatu **Menua > Kontaktuak**.
- 2 Joan **Kontaktu berria** aukerara, eta hautatu **Gehitu**.
- 3 Sartu izena, eta hautatu **Ados**.
- 4 Sartu zenbakia, eta hautatu **Ados**.
- 5 Hautatu zenbaki bat eta gehitu informazio gehiago, baldin badago.
- 6 Hautatu **Gorde**.

Kontaktuak ezabatzea

Kontaktuak ezabatzek

- 1 Hautatu **Menua > Kontaktuak**.
- 2 Joan **Kontaktu berria** aukerara, eta hautatu **Auker.. > Aurreratua > Ezabatu kont. guztiak**.
- 3 Hautatu aukera bat.

Kontaktuen memoriaren egoera

Telefonoan edo SIM txartelean gorde dezakezun kontaktu-kopurua erabilgarri dagoen memoriaren araberakoa da.

Kontaktuen memoriaren egoera egiaztatzeko

- 1 Hautatu **Menua > Kontaktuak**.
- 2 Joan **Kontaktu berria** aukerara, eta hautatu **Auker.. > Aurreratua > Memoriaren egoera**.

Ni

Norberari buruzko informazioa sar daiteke, eta, adibidez, norberaren bisita-txartela bidali.

Niri buruzko informazioa sartzeko

- 1 Hautatu **Menua > Kontaktuak**
- 2 Joan **Ni** aukerara, eta hautatu **Ireki**.
- 3 Joan aukera batera eta editatu informazioa.
- 4 Hautatu **Gorde**.

Zure bisita-txartela gehitzeko

- 1 Hautatu **Menua > Kontaktuak**.
- 2 Joan **Ni** aukerara, eta hautatu **Ireki**.
- 3 Joan **Nire datuak**. Aukerara eta hautatu **Gehitu> Sortu Berria**.
- 4 Joan fitxa batetik bestera, eta bete eremuak.
- 5 Idatzi informazioa eta sakatu **Gorde**.

Taldeak

Telefono-zenbakiekin eta helbide elektronikoekin taldeak sor ditzakezu **Kontaktuak** aukeran, eta haien mezuak bidali. Taldeak ere erabil ditzakezu (telefono-zenbakiekin) onartutako dei-egileen zerrendak sortzen dituzunean.

Zenbakiz eta helbide elektronikoz osatutako talde bat sortzeko

- 1 Hautatu **Menua > Kontaktuak**.
- 2 Joan **Kontaktu berria** aukerara, eta hautatu **Auker.. > Taldeak**.
- 3 Joan **Talde berria** aukerara, eta hautatu **Gehitu**.
- 4 Sartu izen bat taldearentzat, eta hautatu **Jarraitu**.
- 5 Joan **Berria** aukerara, eta hautatu **Gehitu**.
- 6 Joan markatu nahi duzun kontaktu-telefonora edo helbide elektronikora, eta hautatu **Markat**.
- 7 Hautatu **Jarraitu > Eginda**.


Markatze azkarra

Markatze lasterrarekin, agendako bederatzi kontaktu hautatu, eta azkar marka ditzakezu, itzaroteko modutik. Kontaktuak 1 – 9 posiziotan gorde daitezke.

Markaketa bizkorreko zenbakiei agendako kontaktuak gehitzeko

- 1 Hautatu **Menua > Kontaktuak**.
- 2 Joan **Kontaktu berria** aukerara, eta hautatu **Auker.. > Markatze azkarra**.
- 3 Joan posizioko zenbaki batera, eta hautatu **Gehitu**.
- 4 Hautatu kontaktua.

Markaketa bizkorra erabiltzeko

- Sakatu kokalekuaren zenbakia eta sakatu .

Dei-funtzio gehiago

Ahots-postontzia

Harpidetzak erantzungailu-zerbitzua baldin badu, deitzen dutenek mezu bat utz dezakete ahots-postontzian deia ezin duzunean hartu.

Ahots-postontziko zenbakia sartzeko

- 1 Hautatu **Menua > Mezularitza > Mezuak > Ezarpenak > eta Mezu ezarpenak** fitxan **Ahots postaren zk..**
- 2 Sartu zenbakia, eta hautatu **Ados**.

Ahots-postontziaren zerbitzura deitzeko

- Luze sakatu .

Ahots bidezko kontrola

Ahots-komandoak sortuz gero, aukera hauek dituzu:

- Ahots bidezko markaketa: pertsonaren izena esanez deitzea
- Deiei erantzutea eta deiak ez onartzea, esku librekoa erabiltzen duzunean.

Ahots bidezko markaketa erabilia ahots-komando bat grabatzea

- 1 Hautatu **Menua > Ezarpenak > Orokorra > Ahots kontrola > Ahots markatzea > Aktibatu**.
- 2 Hautatu **Bai > Ahots kom. berria** eta hautatu kontaktuak. Kontaktuak zenbaki bat baino gehiago badu, hautatu zer zenbaki gehitu nahi diozun ahots-komandoa.
- 3 Grabatu ahots-komando bat, adibidez, "Jon mugikorra".
- 4 Segi agertzen diren jarraibideei. Itxaron tonua entzun arte eta esan grabatu nahi duzun komandoa. Ondoren, ahots-komandoa erreproduzitu egingo da.
- 5 Grabazioa ondo entzuten bada, hautatu **Bai**. Bestela, hautatu **Ez**, eta errepikatu 3. eta 4. pausoak.

- ! Ahots-komandoak telefonoaren memorian bakarrik gordetzen dira. Ezin dira beste telefono batean erabili..

Ahots bidezko markaketa erabiltzeko

- 1 Luze sakatu bolumen-tekla bat.
- 2 Itxaron tonua entzun arte, eta esan aurrez grabatuta duzun izena, adibidez, "Jon mugikorra". Telefonoak izena errepikatu eta deia egiten du.

Ahots bidezko erantzuna eta grabazioa komandoak aktibatzeko

- 1 Hautatu **Menua > Ezarpenak > Orokorra > Ahots kontrola > Ahots erantzuna > Aktibatu**
- 2 Segi agertzen diren jarraibideei eta hautatu **Jarraitu**. Itxaron tonuari eta esan "Erantzun" edo beste edozein hitz.
- 3 Hautatu **Bai** onartzeko edo **Ez** grabazio berria egiteko.
- 4 Itxaron tonuari eta esan "Komunikatzen" edo beste edozein hitz.
- 5 Hautatu **Bai** onartzeko edo **Ez** grabazio berria egiteko.
- 6 Segi agertzen diren jarraibideei eta hautatu **Jarraitu**.
- 7 Hautatu ahots bidezko erantzuna aktibatu nahi duzun inguruneak.

Ahots komandoak erabilia deiei erantzutea

- Esan "Erantzun".

Ahots komando bat grabatzeko


- 1 Hautatu **Menua > Ezarpenak > Orokorra > Ahots kontrola > Ahots markatzea > Editatu izenak.**
- 2 Joan komando batera eta hautatu **Aukerak > Ahotsa ordezkatu.**
- 3 Itxaron tonua eta esan komandoa.

Deiak desbideratzea

Deiak, adibidez, erantzungailu-zerbitzu batera desbidera ditzakezu.

- ! *Deiak murriztu* aukera erabiltzen denean, deiak desbideratzeko aukera batzuk ez dira erabilgarri egongo.

Deiak desbideratzeko

- 1 Hautatu **Menua > Ezarpenak > Deiak > Deiak desbideratu.**
- 2 Aukeratu dei-mota bat eta desbideratze-aukera bat.
- 3 Hautatu **Aktibatu** eta hau agertuko da .
- 4 Sartu deiak desbideratzeko zenbakia, eta hautatu **Ados.**

Deia zain

Deia zain zerbitzua aktibo dagoenean, txirrina entzuten da bigarren deia jasotakoan.

Zain dagoen deia onartzeko

- Hautatu **Menua > Ezarpenak > Deiak > Deiak kudeatu > Deia zain > Aktibatu.**

Dei bat baino gehiago

Dei bat baino gehiago kudea ditzakezu aldi berean. Adibidez, uneko deia zain dagoen dei izatera pasa dezakezu, beste dei bat egin edo beste dei bati erantzuten diozun bitartean. Dei batetik bestera ere joan zaitezke. Ezin izango duzu, hirugarren deia erantzun aurreko bietako bat amaitu arte.

Biren artean aldatzeko

- Hizketan ari zarela, sakatu .



Dei biak lotzeko

- Hizketan ari zarela, hautatu **Auker.. > Deiak lotu.**


Uneko deia bukatu eta zain dagoen deira itzultzeko

- Lehenengo  eta ondoren .

Bigarren deia egiteko

- 1 Hizketan ari zarela, sakatu .
- 2 Hautatu **Auker. > Gehitu deia.**
- 3 Sartu deitu nahi duzun zenbakia, eta sakatu .

Bigarren deiari erantzuteko

- Hizketan ari zarela, sakatu . Uneko deia zain dagoen dei izatera pasatuko da.

Bigarren deia ez onartzeko

- Hizketan ari zarela, sakatu  eta jarraitu uneko deiarekin.



Uneko deia amaitu eta bigarren deiari erantzuteko

- Hitz egiten ari zarela, hautatu **Dei akt. aldatu.**

Konferentzia-deiak

Konferentzia-dei baten bitartez, bost pertsonaren elkarrizketan parte har dezakezu.

Beste solaskide bat eranste

- 1 Hizketan ari zarela, sakatu  . Hala, konferentzia-deiak deia zain dagoen dei izatera pasatuko dira.
- 2 Hautatu **Auker.. > Deia gehitu.**
- 3 Sartu deitu nahi duzun zenbakia, eta sakatu  .
- 4 Hautatu **Auker.. > Deia erantsi** solaskide berria gehitzeko.
- 5 Errepikatu urrats hori, solaskide gehiago eranste.

Solaskide bat kentzeko

- 1 Hautatu **Auker. > Deia bukatu.**
- 2 Hautatu kendu nahi duzun solaskidea.

Elkarrizketa pribatu bat izateko

- 1 Hizketan ari zarela, hautatu **Auker. > Hitz egin honekin** eta hautatu zer solaskiderekin hitz egin nahi duzun.
- 2 Konferentzia-deiari berriro ekiteko, hautatu **Auker. > Deiak lotu.**

Nire zenbakiak

Zure telefono-zenbakiak ikus, erantsi eta edita ditzakezu.

Zure telefono-zenbakiak egiaztatzeko

- 1 Hautatu **Menua > Kontaktuak.**
- 2 Joan **Kontaktu berria** aukerara eta hautatu **Auker. > Zenbaki bereziak> Nire zenbakiak.**
- 3 Hautatu aukera bat.

Deiak onartzea

Telefono-zenbaki batzuetako deiak bakarrik jasotzea aukeratu dezakezu.

Onartutako pertsonen zerrendan zenbakiak gehitzeko

- 1 Hautatu **Menua > Ezarpenak> Deiak> Deiak kudeatu> Deiak onartu> Zerrendatik soilik.**
- 2 Joan **Berria** aukerara, eta hautatu **Gehitu.**
- 3 Hautatu kontaktua edo **Taldeak.**

Dei guztiak onartzeko

- Hautatu **Menua > Ezarpenak> Deiak> Deiak kudeatu> Deiak onartu> Deitzaile guztiak.**

Markaketa murriztua

Sarrerako eta irteerako deiak murriztu ditzakezu. Ezinbestekoa da zerbitzu-hornitzaileak emandako pasahitza erabiltzea.

- ! Sarrerako deiak desbideratzen badituzu, ezingo dituzu deiak murrizteko zerbitzuaren aukera batzuk erabili.

Deiak murrizteko aukerak

Aukera estandarrak hauek dira:

- **Irteten diren guztiak:** irteerako dei guztiak
- **Nazioarteko eginak:** irteerako nazioarteko dei guztiak
- **Ibiltaritzan eginak:** irteerako nazioarteko dei guztiak, jatorrizko herrialdera egiten direnak izan ezik
- **Sartzen diren guztiak:** sarrerako dei guztiak
- **Ibiltaritzan jasoak.:** sarrerako dei guztiak atzerrian zaudenean

Deiak murrizteko

- 1 Hautatu **Menua > Ezarpenak> Deiak> Deiak kudeatu > Deiak mugatu.**
- 2 Hautatu aukera bat.
- 3 Hautatu **Aktibatu.**
- 4 Sartu pasahitza, eta hautatu **Ados.**

Deien iraupena eta kostua

Deiak egitean, hitz egiten zenbat denbora daramazun agertzen da telefonoan. Azken deien, irteerako deien eta dei guztien iraupena zenbatekoa den ere jakin dezakezu.

Deiaren iraupena egiaztatzeko

- Hautatu **Menua > Ezarpenak> Deiak > Ordua > Deien tenporizator.**

Telefono-zenbakia bistaratzea edo ezkutatzea

Dei bat egiten duzunean zure telefono-zenbakia bistaratzea edo ezkutatzea hauta dezakezu.


Telefono-zenbakia ezkutatzeko

- 1 Hautatu **Menua > Ezarpenak> Deiak > Erakutsi./ezkutatu zk.**
- 2 Hautatu **Ezkutatu zenbakia.**

Irudiak


Argazkiak atera eta bideoak grabatu, ikusi, gorde eta partekatu ditzakezu. **Media** eta **Fitxategi kudeatzailea** funtzioetan gordetako argazkiak eta bideoak dituzu hor.

Kameraren bisorea eta teklak



1	Kamera aktibatzeko Argazkiak ateratzeko/bideoak grabatzeko
2	Zooma gerturatzeko edo urruntzeko
3	Argazkia: Flasha Bideoa: Argia
4	Argazkia: Eskenak Bideoa: gaueko modua

Kamera aktibatzeko

- Itxaroteko moduan, luze sakatu .

Doikuntzak aldatzeko





- Kamera aktibatu eta hautatu .

Doikuntzei buruzko informazioa ikusteko

- Joan doikuntza horretara eta hautatu .

Argazki-kamera erabiltzea


Argazki bat ateratzeko

- 1 Aktibatu kamera, eta, norabide-tekla erabiliz, joan tekla honera .
- 2 Sakatu  erdiraino enfoke automatikoa erabiltzeko
- 3 Puntua eta enfoke markoa berdez jartzen direnean, guztiz sakatu  argazkia egiteko. Argazkia automatikoki gordetzen da.
- 4 Beste argazki bat egiteko, sakatu  bisorera itzultzeko.

Zooma erabiltzeko

- Sakatu bolumen tekla.

Distira doitzeko

- Sakatu norabide-tekla ezkerrerantz distira gutxitzeko. Sakatu norabide-tekla eskuinerantz distira gehitzeko. Distiraren intentsitatea ikur honen ondoan agertzen da .

Aurpegiak detektatzea

Zentratu gabeko aurpegi bat fokatzeko erabili dezakezu aurpegiak detektatzeko funtzioa. Kamerak automatikoki detektatzen ditu marko zuriz adierazitako hiru aurpegi. Marko berdeak enfokerako hautatutako aurpegia erakusten du. Kameratik gertuen dagoen aurpegian fokatzen da.




Aurpegiak detektatzeko funtzioa aktibatzeko

- 1 Kamera aktibatu eta norabide-tekla erabilita joan teklara .
- 2 Hautatu  > **Fokatu > Aurpegi haut.**




Irribarreak detektatzea

Irribarreak detektatzeko funtzioa erabilita senitarteko eta lagunen irribarrearen argazkia lortuko duzu. Kamerak automatikoki detektatzen ditu hiru irribarre eta automatikoki fokatzen du. Marko hori batek adierazten du aukeratutako aurpegia. Aukeratutako aurpegian irribarrea agertzen denean, kamerak automatikoki aterako dio argazkia.

Irribarreak detektatzeko funtzioa aktibatzeko

- 1 Kamera aktibatu eta norabide-tekla erabilita joan teklara .
- 2 Hautatu  > **Argazki modua > Irribarre haut.**
- 3  agertzen denean, kamera irribarreak detektatzeko funtzioan dagoela adierazten du.

Irribarreak detektatzeko funtzioa erabiltzeko

- 1 **Irribarre haut.** konfiguratuta dagoenean objektua kamerarekin fokatu.
- 2 Sakatu   ikurra irribarreak detektatzeko funtzioa aktibatuta dagoela adierazten du. Fokatutako aurpegiaren inguruan marko hori bat agertzen da.
- 3 Pertsonak irribarre egiten duenean, kamerak automatikoki aterako dio argazkia.
- 4 Irribarrerik detektatzen ez bada argazki bat egin nahi baduzu, berriz sakatu  atzeraino.

Eszenak

Eszenak funtzioarekin azkar konfiguratuko duzu kamera eta programatutako eszenen bidez ohiko egoeratan erabili. Kamerak doikuntza ezberdinak ditu erabiltzailean eszenarik egokiena aukera dezan horrela argazkirik onena bermatu.

Eszenak erabiltzeko







- 1 Kamera aktibatu eta norabide-tekla erabilita joan teklara .
- 2 Hautatu  > **Eszenak.**
- 3 Eszena bat hautatu.
- 4 Hautatu  bisorera itzultzeko.
- 5 Egin argazkia.

Photo fix

Argazki konponketa funtzioarekin argazkia hobetu daitezke. Behin sakatuta, distira, argia eta kontrastea doitu egiten dira argazkirik onena lortzeko. Hobekuntzak argazkiaren kopia baten moduan gordetzen dira. Jatorrizko argazkia ez da aldatzen.

Argazki konponketa erabili argazki bat hobetzeko

- 1 Kamera aktibatu eta norabide-tekla erabilita joan teklara .
- 2 Egiaztatu **Berrikusi** aktibatuta dagoela. Hautatu  > **Ezarpenak** Eta joan **Berrikusi > Aktibatuta** aukerara. H a u t a t u  bisorera itzultzeko.
- 3 Egin argazkia.
- 4 Argazkia ikusten ari zarela, hautatu **Auker.. > Argazki konponketa.**
- 5 Ikusi hobekuntza eta hautatu **Gorde** gordetzeko.
- 6 Ez baduzu gorde nahi, sakatu **Atzera.**

Kamera erabiltzeko gomendioak

Herenaren araua

Ez jarri objektua markoaren erdian. Heren batera kokatzen baduzu, argazki hobeak lortuko dituzu.

Sendo eutsi kamerari

Argazkiak mugituta atera ez daitezzen, eutsi sendo kamerari. Esku objektu tinko baten kontra finkatzen baduzu, sendoago eutsiko diozu. Argazkia ateratzerakoan telefonoa ez mugitzeko, tenporizadorea ere erabil dezakezu.

Hurbildu

Objektuaren ahalik eta gertuen kokatu, horrela ez duzu zooma erabili behar. Saiatu objektua bisore osoan okupatzen.

Flasharen distantziaren barruan mantendu zaitetz

Flasharen distantziatik urrunago egiten diren argazkiak ilunegi aterako dira. Flasharen distantziarik handiena objektutik lau pausukoa da.

Bariatatea kontuan izan

Angelu ezberdinak kontuan izan eta objekturantz mugitu zaitetz. Argazkiak bertikalean ere egin ditzakezu. Saiatu posizio ezberdinak erabilia.

Atzealde argia erabili





Atzealde argiak objektua nabarmentzen laguntzen du.

Lentea garbi mantendu

Telefono mugikorrek edozein klimatologia-egoeran eta edozein tokitan erabiltzen dira, eta poltsikoan edo poltsan eramaten dira. Honek kameraren objektiboa lohitu egiten du eta hatz-aztarnaz bete egiten du. Erabili trapu leuna garbitzeko.

Bideo-kameraren erabilera

Bideo bat grabatzeko

- 1 Kamera aktibatu eta norabide-tekla erabilia joan teklara .
- 2 Sakatu  guztiz grabaketa hasteko.
- 3 Grabaketa gelditzeko sakatu . Bideoa automatikoki gordetzen da.
- 4 Bisorera itzultzeko eta beste bideo bat grabatzeko .


Argazkien erabilera

Argazkiak eta bideoak ordenagailuan ikusi, hobetu eta antolatzeko instalatu *Adobe™ Photoshop™ Album Starter Edition*. Gune honetatik deskargatu www.sonyericsson.com/support.



Erabili Media Go™ telefonotik eta telefonora edukiak pasatzeko.

Argazkiak ikusi eta etiketatu

Argazkiak ikusteko

- 1 Kamera aktibatu eta norabide-tekla erabilia joan  teklara.
- 2 Mugitu argazkietatik.

Bideoak ikusteko

- 1 Kamera aktibatu eta norabide-tekla erabilia joan  teklara
- 2 Joan bideo batera eta erdiko hautatze tekla sakatu. Bideoak  ikurra dute ezkerreko goiko aldean.

Argazkiak aurkezpen baten ikusteko

- 1 Hautatu **Menua > Media > Argazkia > Kameraren albuma.**
- 2 Hilabetea aukeratu.
- 3 Joan argazki batera eta hautatu **Ikusi.**
- 4 Hautatu **Aukerak > Aurkezpena.**
- 5 Hautatu gogo-aldarte.

Argazkiak mapan aurkeztea



Argazki bat ateratzen duzun bakoitzean, kokapen geografikoa gehitu diezaiokezu. Funtzio horri etiketa geografiko deitzen zaio. Etiketa geografikoa duten argazkiek etiketa dute Media atalean. Ezin baditu argazkiak mapan ikusi, kontsultatu *Ezin ditut Interneten oinarritutako zerbitzuak erabili* 60. orrialdean.

- ! Etiketa geografikoak eskaintzen dituen datuak orientagarriak dira eta aplikazio bateragarria behar dute. Sony Ericssonek du berea egiten datu hauen zehaztasunaren gaineko inolako bermerik.

Argazkiak mapan ikusteko

- 1 Hautatu **Menua > Media > Argazkia > Geoetiketak.**
- 2 Hautatu hilabetea.
- 3 Joan argazkiraino eta hautatu **Ikusi.**
- 4 Hautatu **Aukera > Mapan ikusi.**

Geoetiketak aktibatze edo desaktibatze

- 1 Kamera aktibatu eta norabide-tekla erabilita joan .
- 2 Hautatu  > Ezarpenak > Kokapena gehitu.
- 3 Hautatu aukera bat.

Argazki-etiketak

Argazkiak etiketa ditzakezu, sailkatzeko. Hautatu Etiquetas fotográficas. Adibidez, Oporrak deituriko etiketa bat sor dezakezu, eta, gero, oportetako zure argazki guztiei gehitu ".

Argazki-etiketa berria sortzeko

- 1 Hautatu **Menua > Media > Argazkia > Kam. albuma.**
- 2 Joan hilabete batera.
- 3 Joan argazki batera eta hautatu **Ikusi.**
- 4 Sakatu norabide-tekla beherantz eta hautatu **Aukerak. > Etiketatu argazkia.**

Argazkiak etiketatze s

- 1 Hautatu **Menua > Media > Argazkia > Kam. albuma.**
- 2 Joan hilabete batera.
- 3 Joan argazki batera eta hautatu **Ikusi.**
- 4 Sakatu norabide-tekla beherantz eta joan etiketa batera.
- 5 Hautatu **Aukerak. > Etiketatu argazkia.**
- 6 Etiketa jarri nahi diozun argazki bakoitzeko, joan argazkira era hautatu **Aukerak. > Etiketatu argazkia.**

Argazkiko etiketa ezabatze

- 1 Argazkia ikusten zaudenean, sakatu norabide-tekla beherantz.
- 2 Joan etiketara eta hautatu **Aukerak. >Etiketa ezabatu.**

Argazkiak erabiltzea

Irudia kontaktu bati gehi diezaiokezu, telefonoa piztean erabil dezakezu edo itxaroteko moduan pantailaren hondo edo pantaila-babes gisa jarri.

Argazkiak erabiltzeko

- 1 Hautatu **Menua > Media > Argazkia > Kam. albuma.**
- 2 Hautatu hilabetea.
- 3 Joan argazki batera eta hautatu **Ikusi.**
- 4 Hautatu **Aukerak. > Erabili.**
- 5 Hautatu aukera bat.

Argazkiak inprimatzea

Argazkiak inprima ditzakezu USB kablea PictBridge™ inprimagailu bateragarri batera konektatuz gero.

- 💡 Inprimagailu bateragarri batean Bluetooth teknologiaren bidez ere inprima dezakezu, Object Push Profile-rekin bateragarria den inprimagailu bat erabilita.

Argazkiak USB kable bidez inprimatzeko

- 1 Hautatu **Menua > Antolatzailea > Fitxategien kudeatzailea>Kam. albuma > Ireki.**
- 2 Hautatu **Aukerak. > Markat.> Markatu batzuk edo Markatu denak.**
- 3 Hautatu **Auker. > Inprimatu** eta argibideak jarraitu.
- 4 Konektatu USB kablea telefonoari.
- 5 Konektatu USB kablea inprimagailuari.
- 6 Itxaron telefonoko jarraibideei.
